

2016KO UZTAILAREN 14AN UDALBATZAK EGINDAKO OSOKO BILKURA BEREZIAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko and.

ZINEGOTZIAK:

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel Ángel Olveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

BERTARATU EZINA ADIERAZTEN DUTE:

Manuel Muñoz Morentin jn., honek bere botoa zein izango den idatziz azaldu du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamaseiko uztailaren 14a izanda, ordu biak eta bost zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren osoko bilkura berezia egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, lharduneko Idazkari bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

Gai-zerrendako aztergaiak jorratzen hasi baino lehen, osoko bilkura berezia eta urgentearen adierazpena bozkatu da; bertaratuek aho batez onartu dute.

1.- 2016KO EKAINAREN 7KO OSOKO BILKURAN ONARTU ZEN MOZIOAREN KONTRAN AURKEZTU DEN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAREN AURREAN EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK AZTERTZEA.

2016ko ekainaren 7ko osoko bilkuran onartu zen mozioa ikusirik, non Israelgo Estatuko enpresak, erakundeak edo instituzioen kontrako boikot kanpainarekin bat egin zen.

Acción y comunicación sobre el oriente medio Elkarrekin aurrean azaldutako mozioa onartzeagatik jarritako 206/2016-B administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ikusirik.

Idazkaritzak 2016ko uztailaren 13an egindako –eta espedienteari eransten zaiona- txosten juridikoa ikusirik.

Aurrekari guztiak ikusirik, eta udalbatzako kideek gaia eztabaidaturik.

Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Adostu dute PNV-EAJ udal taldearen (Mikel Herrador Iriarte, Juanjo García de Acilu Pérez, María Asun Quintana Uriarte eta Susana Sáenz de Ugarte Corres) 4 Zinegotzi jaun-andreen aldeko botoekin; KAIXO udal taldearen (Ibernalo Basterra Txasko, Zuriñe Sáenz Sáenz, Idoia Arenaza Sáenz del Burgo eta Manuel Muñoz Morentin –zinegotzi honek idatziz adirazi du haren botoa bilkurara bertaratu ezin izan duelako eta gaiaren garrantzia kontuan hartuta) 4 Zinegotzi jaun-andreen abstentzioarekin; eta KAIXO udal taldearen Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz Zinegotzi jaunaren kontrako botoarekin:

LEHENA.- Pertsonen oinarrizko eskubideen kontrako erasoak eragin dezakeelakoan, mozioa eta haren ondorioak erretiratu ostean prozedura judizialaren geldiera (206/2016-B) eskatzea.

BIGARRENA.- Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizko 1. Epaitegiari Akordioaren berri ematea Kanpezuko Udalaren kontran irekitako auzi judiziala artxibatzeko eskatuz.

HIRUGARRENA.- Israelek Espainian duen enbaxadari Akordioaren kopia bidaltzea.

LAUGARRENA.- Udal web orrian eta iragarki taulan akordiaren berri ematea.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko ordu biak eta hamazortzi minututan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.